



Guraso agurgarriok:

Dakizuenez, ikastetxe publikoetan DBH egiten ari diren ikasleei zuzendutako garraiorako banakako diru-laguntzen deialdiaren agindua azaldu da (EHAA 2020-12-15) 2020-2021 ikasturterako.

Baldintza orokorrak

-Ikasleek bete behar dituzten baldintzen artean ondorengo hauek gogorarazi nahi ditugu :

Ikastetxea 2 km edo gehiagotara egon behar du (1-2 DBH-ko ikasleak)

Ikastetxea 4 km edo gehiagotara egon behar du (3-4 DBH-ko ikasleak)

Etiket ikastetxera edo ikastetxetik gertuen dagoen geltokira dagoen tartearen arabera egingo da distantziaren kalkulua.

- Eragin-eremuaren arabera ikasleari dagokion ikastetxera joan beharra izatea.

Eskaeren aurkezpena

1.– Eskabideak betetzeko, www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/ web-helbidean dagoen aplikazioa erabiliko da.

2.– Eskabidea erabat beteta dagoenean, izapidetze telematikoa egiten jarraitu edo paperean aurkeztu aukeratu beharko du.

3.– Aurkezpen telematikoa egitea aukeratuz gero, ezinbestekoa izango da sinadura elektronikoa izatea indarrean den ziurtagiri digitalarekin (NAN; lizenpe txartela) edota itsasontzien jokoa (B@kq), eta eskabidea elektronikoki sinatu beharko da. Orduantxe geratuko da eskabidea erregistratuta.

4.– Paperean aurkeztea erabakiz gero, aplikazioak sortuko duen eskabide-formularioa inprimatu beharko da; ondoren, sinatu eta honako toki hauetakoren batean aurkeztu beharko da:

– Dirulaguntza eskatzen duen ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxean.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikulua zehaztutako tokietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan, hilabeteko epean, Agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaera aurkezteko epea

Eskaera aurkezteko epea 2021ko urtarrilaren 28an bukatuko da.

Laguntza ordaintzea

Izendatu diren diru-laguntzen ordainketa aldi batean egingo da, deialdiari ebazpena eman ondoren. Ikasle onuradunek ikasketak egiten dituzten zentroetara bidaliko da diru-zenbateko osoa. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean justifikatu beharko du zentroak ordaindu izana, ordezkaritzak emandako aginduei jarraituz.



Diru-laguntzen kontrola

Halaber, ikasle onuradunei eskatuko diete, 2021ko ekainaren 30ean baino lehen, diru-laguntzaren zenbatekoa egunero edo astero ikastetxera joan beharrak sortu dituen gastuak ordaintzeko erabili dela justifikatu dezatela. Justifikazio-agiri horiek ondorengo hauek izango dira: txartelak, fakturak eta, ibilgailu partikularra erabiltzen bada, erantzukizunpeko adierazpena.

Zalantzak argitzeko, ikastetxeko web orria www.antigua-luberri.net, edo Hezkuntza saileko web orria www.euskadi.eus, kontsultatu daiteke, edo ikastetxeko Idazkaritzarekin harremanetan jarri.

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

Donostian, 2021ko urtarrilaren 7an